







## Energia kontsumoa EAEn



### Energiaren kontsumoa EAEn

#### Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %3,4 egin zuen gora urtarrilean, 2014. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %2,3 igo zen, bizitegian %0,4 eta zerbitzu alorrean 10,2.

Azken 12 hilabeteen kontsumo metatuak %2,3 egin zuen gora; gehienbat industriak eraginda, %4.6 igo baitzen, 2014ko epealdi beraren aldean. Industriaz gain, zementu eta karea (%33,9), elikadura (%7,4), siderurgia eta galdagintza (%2,9) sektoreek ere gora egin dute. Behera egin dutenak, ordea, beiragintza (%13,8) eta itsas eraikuntza eta konponketa (%18,3) izan dira.

#### Gas naturala

Urtarrilean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %13,8 egin zuen gora, 2014ko urtarrilean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %21,8 igo zen eta gainerako sektore kontsumitzaileena 12,5.

Azken 12 hilabeteen izandako kontsumo metatuak %3,8 egin du behera, aurreko epealdi beraren aldean, (%1,5 CCTT-n eta %4,3 gainerako sektoreetan).







#### Erregaiak garraioan

Abenduan, garraioan erregaien kontsumoa %3,6 igo zen, 2013. urteko hil berean izandakoarekin erkatuta. Gasolinarenak %1,2 egin zuen gora eta A gasolioarenak %3,9.

2014. urtean izandako guztizko kontsumoari dagokionez, %0,9 igo da, 2013koarekin alderatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %2 egin zuen behera eta A gasolioarenak, aldiz, %1,3 egin zuen gora.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

## Kanpoko Egoera



### EAetik kanpoko egoera

#### Petrolioaren kontsumoa munduan

Urtarrilean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 91,9 milioi kupel izan zen (2014ko urtarrilean izandakoaren aldean, %1,3 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %3,5 egin zuen gora kontsumoak, 13,1 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %3,1 egin zuen gora, eta 10,7 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan, %1,6 igo zen, eta 19,2 Mbpd kopuruan kokatu zen.

Munduan, azken 6 hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,1 igo da, oro har, Txinan %3,5 eta AEBetan %0,9; Europar Batasunean, berriz, %1,3 jaitsi da.

#### Energiaren kontsumoa Espainian

Espainian, gas naturalaren kontsumoak %4,3 egin zuen gora urtarrilean, 2014ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Urte mugikorrekotako kontsumoak %8,1 egin zuen behera.






Elektrizitatearen kontsumoak gora egin zuen urtarrilean, %3,3, 2014ko urtarrilean izandakoaren aldean. Urte mugikorrekotako kontsumoak %1,1 egin zuen behera.

Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %1,6 egin zuen behera azaroan, 2013ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %4,7 jaitsi zen, eta %0,9 gasolioen kasuan. Azarora bitartean izandako kontsumo metatuak %1,1 egin zuen gora, 2013koaren aldean, (%1,1 jaitsi zen gasolinena eta %1,6 igo zen gasolioena).

Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %0,6 egin zuen behera azaroan; ordura arteko kontsumo metatua %3,7 igo zen, 2013ko epealdikoaren aldean.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta EI Aren datuetan oinarrituta.

## Energiaren prezioa



### Energiaren prezioa

#### Elektrizitatearen prezioa.

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 51,6 €/MWh izan zen urtarrilean; duela urtebetekoaren aldean, %53,6 egin zuen gora.

#### Gas naturalaren prezioa.

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 23,5 €/MWh izan zen azaroan, eta %12,8 jaitsi zen, 2013ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Urtarrilean, EGIX-en prezioa 20,5 €/MWh izan zen (2014ko urtarrilean izandakoarekin alderatuta, %18,6 jaitsi zen).

Abenduan, Henry Hub-en prezioa 9,5 €/MWh izatera iritsi zen, 2013ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %9,2 jaitsi zen. Japonian, urtarrilean, 42 €/MWh izan zen (2014ko urtarrilean izandakoaren aldean, %0,7 egin zuen gora).

#### Petrolioaren prezioa.

Brent petroliu upelaren batez besteko prezioa 48,4 \$ (41,6 €) izan zen urtarrilean. Urte mugikorraren batez besteko prezioak %13,3 egin zuen behera (%12,8 eurotan).

#### Erregaien prezioa.

EAEn, abenduan, gasolioaren prezioa 1,13 €/l izan zen (urtebetean %14,2 jaitsi da), eta gasolinarena 1,17 €/l (urtebetean %14,2 jaitsi da).

#### CO<sub>2</sub>-aren prezioa.

CO<sub>2</sub>-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 6,9 €/t izan zen urtarrilean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %41,7 egin du gora.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, YCHARTS eta BAFaren